

ZESTOAKO HIRIGINTZA-ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN PROIEKTU TEKNIKOA, INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKORAKO DOKUMENTUAK, ZARATAREN AZTERLANA ETA HIZKUNTZA-INPAKTUA EBALUATZEKO DOKUMENTUA EGITEN LAGUNTZEKO ETA IDAZTEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA.

I. BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAREN XEDEA

Zestoako Udalak talde tekniko-juridiko bat kontratatu nahi du Zestoako plan orokorra egiteko laguntza tekniko eta aholkuak eman ditzan eta plana idatz dezan. Plan orokorra, Udalaren ekimenez abiatua, EAeko Lurzoruari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen zehaztapenei eta lege hori garatzen duten arauari egokitua dago, eta Korporazioaren erabakiei jarraituz egin beharko da, Udal Zerbitzu Teknikoen zuzendaritzapean. Plan orokor berria egiteko, Zestoako arau subsidiarioen arabide berria berrikusi eta egokitu beharko da (1996ko irailaren 30eko GAOn argitaratu zen arau subsidiarioak behin betiko onartzeko erabakia), eta ondoren egin diren plangintza-aldaketak kontuan hartu. Funtsean, ordea, udalerriko hirigintza garatzeko eta lurzorua okupatzeko beste estrategia bat formulatzea izango da plan berriaren helburua.

Kontratuko lanen artean sartuko da Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorraren aurreko dokumentuak egitea (diagnosia, ingurumena ebaluatzeko prozesua hasteko dokumentua, aurrerapena, alternatiben azterketa, proposamenak) eta, behar bada, dokumentu horien izapideetatik sortzen den testu bategina egitea. Lanen artean egongo da, halaber, aginduzko "ingurumen-ebaluazio estrategikoa" egitea (bereziki, zarata-azterlana), dagozkion agiri eta izapide guztiekin, bat eginez Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearekin, Eusko Jaurlaritzaren 211/2012 Dekretuarekin eta dekretu horrekin bat datozen xedapenekin. Kontratazioaren xede diren lan guztiak egiteko, oro har, kontuan hartuko dira eska daitezkeen legezko betebeharrak guztiak, eta proposatzen eta plangintza berrian sartzen diren zehaztapenak jasangarriak diren ingurumenaren aldetik, betiere aplikagarria den kasuetan.

HAPO idazteko behar diren lan eta dokumentuak, jendaurrean jarri behar badira, EAeko bi hizkuntza ofizialeko batean aurkeztu beharko dira. Era berean, esleipenean jasotako lan guztien formatu informatikoko kopia emango da. Kontratazioaren barnean egongo da dokumentua izapidetzean eta HAPO berria indarrean sartu arte behar den aholkularitza tekniko-juridiko guztia.

II. LANAREN EDUKIA

Plan Orokorraren dokumentazioak zehatz-mehatz bete beharko du Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluetan xedaturikoa; artikuluko zerikusia dute 53. eta 56. artikuluek jasotzen duten egiturazko hirigintza-antolamendu xehatuaren edukiarekin. Horrez gain, egiturazko antolamendu xehatuaren edukiaren beste alderdi batzuk ezartzen dituzten Lurzoru eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen gainerako artikuluek ere bete beharko dira. Dokumentuek, gainera, Korporazioari aurkeztean indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen

zehaztapen eta formalitateak bete beharko dituzte. Fase bakoitzeko dokumentuak egiteko, udaleko teknikarien argibideei jarraituko zaie.

Dokumentuen artean egongo dira, halaber, planteaturiko auziak aztertze edo azaltzeko behar diren txosten eta agiri guztiak, bai Korporazioak eskatuak bai idazketa-taldeak proposatuak, eta beharrezkoa izango da eskatzen diren bilera, solasaldi eta aurkezpenetara bertaratzea (kontratuan sartuta egongo dira joan-etorrien, dieten eta dokumentuak egitearekin lotutako beste gastu guztien kostuak).

HAPOn ingurumen-ebaluazio estrategikoa hirigintza-dokumentuak lantzen hasteko faseetatik egingo da. Ingurumen-ebaluazio estrategikoa hirigintza-dokumentuak egiteko lanaren barruan sartzen da; hau da, egin beharreko ondorengo dokumentuen artean dago. Ebaluazioarekin bat, EAEko lurzoruaren eta hirigintzaren legeriak jasotzen dituen hirigintza-dokumentuak egin beharko dira, elkarrekiko atzeraelikaduraren prozesu batean.

Ingurumen-inpaktua ebaluatzeko azterlana egiteko, kontuan hartuko dira plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura araupetzen duen 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eta 21/2013 Legea.

III. HAPO BERRIAREN DOKUMENTUAK

Jarraian datozen ataletan adierazten diren dokumentuek osatuko dute antolamendu orokorrerako tresna berria.

2.1. INFORMAZIO- ETA DIAGNOSI-DOKUMENTUA: Aurrerapena idatzi aurreko udal- eta lurralde-informazioa bereziki garrantzitsua da HAPOn irizpide eta helburu orokor egokiak ezarri ahal izateko. Horretarako, udalean eskuragarri dagoen askotariko informazioa eta ikerlanak bildu eta aztertuko dira, eta aintzat hartuko da aplikatu beharreko araudi zabala ere, Zestoan eragina duten sektore-planak barne.

Edukiaren arabera, honako gai hauek jaso eta aztertuko dituen dokumentu bat osatu beharko da:

1. Lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren testuingurua.
2. Ingurune naturala, landa-ingurune produktiboa eta landa-habitata.
3. Lurraldeko azpiegiturak: bilbeen identifikazioa eta egoeraren balorazioa; ingurunearen gaineko inpaktuen eta haien aukeren identifikazioa; alternatiba posibleen balorazioa, udal-ikuspegiari oinarritua; lurraldeko azpiegituren eta afekzio nagusien plano laburtua.
4. Hiri-ingurunea: bizitegi-lurzorua: jarduera ekonomikoak; hornidurak; zerbitzuaren azpiegiturak; lurzoruaren kalitatea (kutsatuta egon daitezkeen erabilerak, eta kalitateagatik kontserbatu beharrekoak); lurzoruaren hirigintza-erabileren plano laburtua.

5. Mugikortasuna/irisgarritasuna: trafikoa, ibilgailuak, oinezkoak, bizikleta, garraioak barne. Sarearen egitura; integrazioa; inpaktua; irisgarritasunaren plano laburtuak.
6. Analisi sozioekonomikoa: analisi demografikoa; analisi sozioekonomikoa; beharren zehaztapena.
7. Adierazleak: planaren aurreko hasierako egoerari dagozkion adierazleen laburpena.

Informazio hori lortzeko, Tokiko Agenda 21eko informazioa aztertuko da, eta Udalak egoki irizten badio, barneko eta/edo kanpoko partaidetza-prozesu bat gauzatu beharko du Udalak berak (dena dela, prozesu hori ez dago proposamen honen helburuen artean).

Plan orokorra idatziko duen taldeak egingo du kontratu honen helburu den eta prozesuetarako beharrezkoa den dokumentazioa, eta aktiboki parte hartuko du barneko eta kanpoko partaidetza-prozesuan (aurkezpenak, panelak eta halakoak egiten badira, adibidez).

Informazio horrek egungo irudia erakutsiko du, herritarrengandik gertukoa, eta oinarri gisa balioko du Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorra aztertzeko. Bildutako informazioa aztertu ondoren, DIAGNOSTIKOA izeneko dokumentu bat osatuko da HAPO egiteko, zehatz-mehatz azalduko duena zer maniobra-aukera edo -eremu dauden udal-plan orokorraren antolamendu-zehaztapenak ezarri ahal izateko, hala Udal Korporazioa nola interesa duten eragile sozial eta herritar guztiak jakinaren gainean egon daitezten.

2.2. HASIERA-DOKUMENTUA (EAEko ingurumen-ebaluazio estrategikoari buruzko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua): IEERI buruzko Dekretuaren 8. artikulua dioena betetzeko, hasiera-dokumentua egin beharko da, eta udalerraren antolamendurako aintzat hartzen diren alternatiben proposamena jaso, aurrez eginiko analisi eta diagnostikoa oinarrituta. Hasiera-dokumentuan txertatuko dira, halaber, sektore- eta lurralde-administrazioek eta administrazio-batzarrek Lurzoruaren Legearen 90.1 eta 90.2 artikuluan adierazitako kontsultari erantzunez jakinarazten dituzten kontuak. Gainera, 211/2012 Dekretuaren V. eranskina ere atxikiko da. Proposamen zehatzak, aztertutako alternatibak eta planteatutako antolamendu-irizpideak formalizatu egingo dira, partaidetza publikoko fase batean aurkeztu ahal izan daitezten. Partaidetzaz arduratzen den taldeak gidatuko du fasea, Tokiko Agenda 21 berrikusteko prozesuarekin koordinatuz.

2.3. PLAN OROKORRAREN AURRERAPEN-DOKUMENTUA: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 87. artikulua betetzeko egingo da. HAPOren aurrerapena egiteko, aintzat hartuko dira ingurumen-dokumentu estrategikoaren edukia eta proposamenak, alde batetik, eta fase honetara arte gauzatu den partaidetza publikoko prozesuaren emaitza, bestetik. Aurrerapenaren fasean, udalerrira antolatze proposamenetan, lurzoria planaren 8 urteko indarralditik harago okupatzeko estrategia planteatuko da. Aurrerapenean, gutxienez honako dokumentu hauek jasoko dira: kontuan hartu diren alternatiben planoak eta memoria deskribatzaile-justifikatzailea (atal honetan, plangintzaren aurrerapena, lurraldea osorik antolatzeko eredia eta ereduaren alternatibak zehaztuko dira). Hirigintza-informazioaren analisisa eta ondorioak laburtuko dira, herritarrek parte hartzeko prozesua kontuan hartuz.

Era berean, jarraian zehazten diren atalak jasoko dira gutxienez, eta behar den dokumentazio grafikoa erantsiko da.

1. Irizpide eta helburu orokorrak. Irizpide eta helburu orokorrak, ingurumen-helburuak berariaz adierazita. Alderdi jakin eta esanguratsuei dagozkien helburu espezifiko eta xehatuak.

2. Hiri-lurzoruaren edo lurzoru urbanizagarriaren antolamendu xehatuaren egiturazko antolamendua eta alderdi esanguratsuenak. Proposatutako ereduaren eta eredu horren alternatiben azalpen orokorra. Ereduan jasota dauden helburu espezifikoak. Sistema orokorrak. Ereduaren ebaluazioa, lurzoru-mota guztiak eta horietan egingo diren jarduerak kuantifikatuta. Estandarren ebaluazioa eta analisi konparatiboa.

3. Ingurumen-dokumentu estrategikoa eta dokumentu horren zehaztapenek planean izango duten eragina.

2.4. IRADOKIZUNAK BALORATZEKO DOKUMENTUA. Idazketa-taldeak dokumentu batean bilduko ditu aurrerapena jendaurrean egon den fasean egin diren iradokizunak, eta berariaz jasoko ditu partaidetza-ekintzetan egin diren ekarpenak. Dokumentu honetan, planteatutako antolamendu-irizpideen arabera egin diren iradokizun eta ekarpenen balorazioa jasoko da. Aurrerapena herritarrei aurkezteko, informazio grafikoaren planoak edo tresnak egingo dira, egungo egoera eta antolamenduaren araberrako etorkizuneko irudia konparatzeko, baita planteaturiko alternatibak konparatzeko ere. Jendaurreko fase hori gauzatzeko, idazketa-taldeak konpromisoa hartuko du eginbidean den plana herritarrei hurbiltzeko antolatzen diren tailer edo jardueretan parte hartzeko, eta, horretarako, eskatzen zaizkion komunikazio-dokumentuak osatu beharko ditu. Gainera, proiektuko antolamenduak egungo antolamendua aldaraziko duen esparruak mugarriztatuko dira kokapen-plano batekin, eta aldaketa horrek zein eremu hartuko duen adieraziko da. Hala badagokio, hirigintza-antolamendua edo antolamendua gauzatzeko prozedurak zein esparrutan etengo diren adieraziko da, baita etenaldiak zenbat iraungo duen ere.

2.5. UDAL-ANTOLAMENDUAREN PROIEKTUA. Hurrengo ataletan zerrendatzen diren dokumentuek osatuko dute. Proiektuaren edukia bat etorriko da antolamenduak eragingo dituen hirigintza-arazoen ezaugarriekin. Proiektua idaztean, indarrean den hirigintza- eta sektore-legeriak ezartzen dituen eskakizun guztiak beteko dira.

Dokumentua hasiera batean onesteko aurkeztu denetik behin-behinean onesteko aurkeztu den bitartean, idazketa-taldeak JENDAUURREKO ALDIAN AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI ERANTZUTEKO PROPOSAMENA egingo du. Txosten juridiko bat egingo da aurkezturiko alegazio bakoitzeko.

1.- Justifikazio-memoria.

Memoriak hirigintza-informazioaren epigrafeak laburtu eta aztertuko ditu, antolamenduaren irizpideak ezarriz eta antolamendu orokorrerako tresna berriaren proposamenak deskribatuz. Gutxienez, hauek jasoko ditu:

- Informazioa osatzeko erabili diren irizpideen eta informazioaren fidagarritasunaren justifikazioa. Beharizanen programa, informazioaren ondorio gisa.

- Antolamenduaren helburuak, ingurumen-helburuak barne.
- Antolamenduaren alternatibak eta alternatiba horien balorazio konparatua, hautaturiko hirigintza-egituraren proposamena justifikatuta.
- Gai esanguratsuei buruzko politiken eta jarduteko baliabideen deskribapena (etxebizitza, enplegua, garraioak, hornidurak, atsedenekua, etab.).
- Planean jasotako zehaztapenen arteko koherentziaren justifikazioa.
- Planteaturiko hirigintza-garapeneko ereduari, ekipamendu-mailei eta lokalizatutako biztanleria-esleipen partzialei buruzko grafikoak eta eskemak, eta sektore-politiken irudikapen espazialari buruzko antzeko eskemak.

2.- Antolamenduaren planoak.

- o A. Zerrendapena eta deskripzioa.
- o I. Lurzoruaren Sailkapen Planoa.
- o II. Udal-barrutiaren sailkapen orokorraren planoak.
- o III. Hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren sailkapen orokorraren planoak.
- o IV. Hiri-lurzoruaren sailkapen xehatuaren planoak.
- o V. Eraikuntzaren egoeraren planoak. Jabaria eta Erabilera. Elementu hauek irudikatuko dira:
 - a) Lerroak: fatxadaren nahitaezko lerroak. Fatxadaren gehieneko lerroak.
 - B) Espazioak: beheko solairuko espazio eraikigarria. Goiko solairuetako espazio eraikigarria. Sestra azpiko espazio eraikigarria. Sestra azpiko espazio pribatu eraikiezina, erabilera publikoko zorraren mendekoa.
 - c) Eraikina: eraikin katalogatua. Katalogatu gabeko eraikina, finkatzen diren eraikuntza-baldintzak dituenak. Antolamenduz kanpoko eraikina.
 - d) Beheko solairuko erabilera publikoko ataripea.
 - e) Eraikinaren profila edo sestra azpiko eta gaineko solairuen kopurua.
 - f) Eremu arkeologikoak eta kultura-ondarearen elementuak: eremu arkeologikoak. Presuntzio arkeologikoko guneak. Kultura-ondare sailkatuaren elementuak, kalifikatzeko proposatuak eta udal-plangintzak babesteko proposatuak. 1/500 edo 1/1000 eskalan marraztuko da, oinarri gisa 1/500 ofiziala erabiliz.
- o VI. Planoak, hiri-lurzoruan lerroak eta sestrak definituko dituenak, baita, hala badagokio, ibilgailuen zirkulaziorako bideetako, oinezkoen bide-sareko eta aire zabaleko plaza eta aparkalekuetako nibelazioak ere, beren grafiatu egokiarekin.

o VII. Garapen- eta kudeaketa-baldintzen planoak. Plano honetan, hauek irudikatuko dira:

- 1. Plangintza xehatuko eremuak: hiri-lurzoruan plan bereziaren bitartez antolatu beharreko guneak. Lurzoru urbanizagarrian plan partzialaren bitartez antolatu beharreko sektoreak.
- 2. Sistema orokorrak: sektoreetan antolamendurako sartutakoak. Antolamendurako autonomoak direnak, lehendik zeudelako edo antolatzeke daudelako. Plan berezien bitartez.
- 3. kudeaketa-eremuak: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 136.etik 139.era arteko artikuluetan (PERI) definitutako jarduketaren eremuak. Hiri-lurzoruko exekuzio-unitateak.

o VIII. Planoa, landa-nukleoko lurzoru urbanizagarri eta urbanizaezinean honako hauek definitzen dituena: ur-horniduraren, estolderiaren, energia elektrikoaren, telefoniaren, gasaren, argiteriaren, telekomunikazioen eta Hirigintza Arauan agertzen diren beste hainbaten galeria eta sareen ezaugarriak eta trazadura.

o

3.- Hirigintza-arauen bitartez, lurzoru-mota eta -kategoria ezberdinei aplikagarri izango zaien tratamendua bereiziko da.

- Hiri-lurzoruan, Eraikinen Ordenantzen eta Lurzoruaren Erabilera izaera izango du. Horietan jasoko dira erabilera xehatuaren araudi zehaztua eta lursailen eta eraikinen bolumena eta baldintzak, bai eta antolamenduaren, eraikinen eta inguruaren ezaugarri estetikoak ere. Halaber, honako hauei eragiten dien araudiak ere kontuan hartuko dira: obra- eta jarduera-lizentzien eskaerak eta hirigintza-antolamenduari eta -kudeaketari buruzko agirien idazketa.

- Lurzoru urbanizagarrian, antolamendu-planoetan ezarritako lurzoruaren kalifikazioekin bat etorritik, lurzoruaren eta eraikinen erabilera desberdin guztien araubide orokorra izango dute; lurzoruaren kategoria honetan sartutako sistema orokorren ezaugarriak eta gutxieneko eskakizunak ezarriko dituzte, plan partzialen edo, hala badagokio, plan berezien garapena egokitu behar zaien azpiegiturei eta zerbitzuei dagokienez.

- Lurzoru urbanizaezinean, legean jasotako zehaztapenak jasoko dituzte, hala dagokion heinean.

4.- Udalerriko interes kulturalako eta naturalistikoko ondarearen katalogoa.

Babestutako Elementuen Plan Orokorraren bidez, haien balioa eta interesa dela-eta babestu egin behar diren ondasun artifizial zein naturalak identifikatzen dira, betiere Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 76. artikuluan ezarritakoarekin bat

etorritz. Identifikazioa egiteko, indarrean dagoen unean uneko udal-inbentarioa baloratzea eta berrikustea proposatzen da.

Ondasun horiek identifikatzeaz gain, katalogatutako ondasunetan egin daitezkeen jarduketei buruzko arauak eta loturak ezarri beharko dira, bai eta babestutako ondasunetan eta horien inguruan ezar litezkeen erabileren mugak ere.

5.- Ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa. Ekonomia- eta finantza-bideragarritasuna oso zehatz idatzi beharko da, horren bitartez ebaluatu eta justifikatuko baita proposatutako hirigintza-antolamendua betearazteko udalak duen gaitasun ekonomikoa. Ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketan jasotako Plan Orokorra gauzatzeko epea zortzi urtekoa izango da, Plan Orokorraren berrikuspenera behin betiko onesten denetik aurrera zenbatzen hasita. Bideragarritasunaren azterketan sartuko da sistema orokor publikoen sareko elementuen exekuzioak eragindako kostuen ebaluazio ekonomikoa, baldin eta horien finantzaketa ez bada gune eta sektore jakin batzuen exekuziorako esleitzen.

Organo esleipendunak, Ingurumen Organoak bidalitako ingurumen-memoria jaso ondoren, HAPOn integratuko ditu memoriako zehaztapenak, eta dokumentu bat egingo du integrazio hori nola egin duen azaltzeko.

IV. AHOIKULARITZA TEKNIKO JURIDIKOA

Aholkularitza tekniko juridikoa Plan Orokorraren dokumentua egiten eta izapidetzen den bitartean gauzatu da, dokumentua indarrean sartzen den arte.

Aholkularitza tekniko juridikoak, dokumentua idazteko taldeari aholkularitza emateaz gain, honako hauek egingo ditu:

- Aurrerapen-fasean eta ondoren aurkezten diren alegazioei, erreklamazioei eta iradokizunei erantzun eta horiei buruzko informazioa emango du, dokumentua behin betiko onesten den arte.
- Era berean, txostenak egingo ditu Udalaren beraren proposameneri eta eskaerei buruz, arazoak eta zalantzak argitze aldera, edo lehiaketaren helburu den lanaren inguruan planteatzen diren proposamen espezifikoei buruz.

- Interesdunek edo oro har herritarrek jartzen dituzten administrazio-errekurtsoen berri emango du eta errekurtsu horien ebazpenen ondorioz egin behar diren aldaketak edo sortzen diren akatsen zuzenketak egingo ditu.
- Laguntza teknikoa emango du herritarrek parte hartzeko prozesuan. Laguntza teknikoa emateko, kasu batzuetan HAPOrerkin lotutako gaiak aurkeztu beharko dizkiete herritarrei, teknikari espezialista gisa, kanpo- zein barne-komunikazioa eta -partaidetza gidatzen duen taldeak zuzenduta eta koordinatuta.
- Eskatzen diren bilera, elkarrizketa eta erakusketa guztietara bertaratuko dira eta lortu nahi diren helburuak betetzeko behar diren txosten eta agiri guztiak egingo dituzte. |

V. LANAK EGITEKO GIZA BALIABIDEAK

Lizitazio honetako administrazio-klausula partikularren pleguko 19. klausulako (PROPOSAMENEN AURKEZPENA) f puntuan zehazten da gutxienez zein giza baliabide behar diren kontratazio honetan parte hartzeko. Taldea askotariko beste teknikari eta espezialista batzuekin osatu beharko da, bai lanen fase guztietan, bai horietako batzuetan unean-unean. Akustikan espezialista den talde batekin lan egin beharko da, gutxienez, eta talde horrek eskatutako lanetan parte hartzeko konpromisoa duela egiaztatu beharko du. Akustikaren arloko espezialistak zarata-maparako behar diren azterketak eta neurketak definituko ditu. Taldeak dokumentuak ezarritako epeetan egin eta editatu ahal izateko langileak eta baliabide teknikoak izan beharko ditu. Enpresa esleipendunari konpromisoa eskatuko zaio Zestoako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra osatzeko lanak egiteko titular gisa aurkeztu diren teknikoek egin dezaten lana eta haiek bertaratu daitezten bileretara eta herritarrek parte hartzeko faseetara.

VI. HIZKUNTZA-GAITASUNAK

Kontratututako enpresaren bitartez proiektu honetara atxikitako langileek bermatu egin behar dute administrazioekiko edo hirugarrenekiko harremanetan, hizkuntza-gaitasunei dagokienez, administrazio kontratatzaileari eskatzen zaizkion antzeko baldintzak betetzen dituztela. Hori dela eta, kontratatu beharreko zerbitzuaren ezaugarriak kontuan hartuta, zerbitzua emateaz arduratuko diren arkitektoari eta abokatuari dagokionez, lehentasuna emango zaio Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun-mailari, eta gutxienez B2 maila eskatuko zaie ahozkoan eta idatzian.

Kontratua esleitu aurretik, enpresak egiaztatu egin beharko du zerbitzua emateaz arduratuko diren pertsonak eskatzen den hizkuntza-gaitasuna dutela.

Erabilzaileentzako arreta administrazioari berez eskatzen zaizkion hizkuntza-baldintza beretan emango da. Administrazioak onetsitako hizkuntza-irizpideekin bat etorritik, arreta euskaraz emango da hasiera batean.

Enpresak administrazioarekin dituen ahozko harremanak (bilerak, kontsultak, etab.) administrazioaren lan-hizkuntzan egingo dira, hau da, euskaraz. Enpresak administrazioarekin barnera begira izaten dituen idatzizko harremanak hizkuntza bakarrean egingo dira; bi aldeek adostuko dute zein hizkuntzatan.

VII. LANAK AURKEZTEKO BALDINTZAK: AGIRIEN AURPEZPENA

Ez da elkargo ofizialaren ikus-onespenik eskatzen.

Plan Orokorren espedientea osatzen duten agiriak honela aurkeztu behar dira:

- Taldeak lana gauzatzean egiten dituen txostenak eta irizpenak kopia bakarrean aurkeztuko dira (paperean edo euskarri informatikoan).
- Bestalde, HAPO osatzen duten agiriak honela aurkeztuko dira: sei kopia oso aurkeztuko dira paperean, eta plana osatzen duen agiri bakoitzaren kopia bat euskarri informatikoan. Agiri guztiak paperean eta euskarri informatikoan aurkeztuko dira. Planoak Autocad programarekin bateragarriak diren fitxategi-sistema batean aurkeztuko dira, eta testuak, berriz, Word formatuan. Horrez gain, agiri osoaren bertsio bat aurkeztu behar da PDF formatuan.
- Agiri guztiak idaztean, formulatzean eta aurkeztean ezingo da inola ere hizkuntza sexista eta diskriminatzailea erabili.
- Prezioan sartuta egongo dira ale guztien edizio-gastu guztiak, azaleztatze-, erreprografia-, digitalizazio- eta itzulpen-gastuak eta lanak egiteko behar diren beste gastu guztiak.

VIII. UDALAK EMANDAKO AGIRIAK

- Udalak agiri hauek emango dizkio idazketa-taldeari, Plan Orokorra egiteko.
- - o Udal Planimetria informatizatua: udalerrri osoaren 2005. urteko planoak 1:2000 eskalan, hirigunearen planoak 1:1000 edo 1:500 eskalan, eta aldatutako eremuen planoak 1:1500 eskalan.
 - o Indarrean dauden arau subsidiarioei eta horien aldaketei buruzko informazioa, eta udal-fitxategietan dauden hainbat esparruren eta higiezinaren hirigintza-aurrekariari buruzkoa (udal-bulegoetan bertan kontsultatu eta aztertuko da). Apatta esparruko arau subsidiarioan aldaketa, euskarri informatikoan.
 - o Udal-erroldean dauden biztanleei eta etxebizitzeei buruzko datuak.
 - o Partzelazioari buruzko datuak, katastro-informazioaren arabera.
 - o Gainerako eskakizun materiala kontratatutako talde teknikoak jarri beharko du.

VIII. DOKUMENTUAK IDAZTEKO EPEAK

Informazioa bildu eta diagnostikoa egiten denetik aurrerapen-fasera bitarte, kronograma bat aurkeztu beharko da, eta Plan Orokorren Aurrerapena osatzen duten dokumentuak eta iraunkortasunari buruzko txostena 9 hilabeteko epean aurkeztu beharko dira.

Lanaren bigarren fasea planaren idazketarekin hasiko da. Ondoren, hasiera batean onetsiko da plan hori, helburuetan oinarrituta. Hala badagokio, korporazio berriak berretsiko du, eta fasea plana behin betiko onestean amaituko da, hamabi hilabeteko epean.

IX.- LANEN JABETZA

Zestoako Udala izango da edozein fasetan egiten diren lan guztien jabe, eta esleipendunari eskatu ahal izango dio une horretara bitarte egindako lana aurkezteko. Esleipendunak ezingo du kontratatutako lanaren daturik beretzat erabili, ezta hirugarrenei eman ere, eta ezingo ditu lanaren edukiak ez osorik ez partzialki argitaratu. Udalak izango du lanaren jabetza intelektuala eta lana erabiltzeko eskubidea.